



Aldaketa kosmetiko eta komunikatiboen aurka, aldaketa material, ekonomiko, politiko eta sozial integral eta sakonaren alde. Langile-klasearen onerako.

HAUSTURA

2025ean hamar urte beteko dira Nafarroako Gobernuan UPN-PP ez dagoenetik. Nahikoa denbora da joerak aztertzeke eta balantzea egiteko. Zer gertatu da hamarkada honetan? Zer espero dezakegu etorkizunaz? Diruz lagundutako prentsaren lerrobueren arabera, nabarrismoaren korralitotik administrazio aurrerakoira igaro omen gara, aldaketaren gobernuan igarotoki batekin. Baina, autokonplazentziazko erretorika instituzionaletatik eta klase politiko profesionalaren balorazioetatik harago, haustura-izaeratik lan politikoa egin nahi dugunok, zorrotz aztertu behar ditugu aldaketa materialen irismena eta erreallitatean dauden baldintzak.

2015ean erori zen Nafarroa trantsiziotik gobernatzen zuen erregimena. UPN-PSN tandemaren PP/PSOE binomioaren foru-itzulpena zen, zeina M15 garaian sortutako mobilizazio zikloan 78ko Erregimenaren habe nagusizat seinatu baitzen. Nola liteke erregimenaren bermatzaileetako bat zen hori bloke aurrerakoien buru izatera igarotzea? Indar korrelazioaren aitzakiapean, eta, diotenez, kosta ahala kosta eskuinaren itzulera saihesteko, erregimena bertan behera uztea eta aldaketa ezartzea hitzeman zuten alderdi horiek PSOEn neurriko gobernantza baten mendeko eragile bihurtu dira.

Hauteskunde-izaerako mugimendu indartsuak izan dira, hala nola PSNren metamorfosia, UPNren barne krisia eta Voxen agerpena, M15eko mugimenduaren gorakada eta gainbehera, Ezker Abertzalearen instituzionalizazioa edo EAJren papera Nafarroan. Hala ere, ez da esanguratsua klase-politika bat bultzatzeko aurkitzen ditugun erronkei eta zailtasunei heltzeko orduan. Lurraldearen egungo gobernantzaren ildo nagusiak, horiek sortzen dituzten kontraesanak eta gatazkak, izan ditzaketen krisiak eta horiei jarraipena emateko edo aurre egiteko baldintzak sendoak diren aztertzea da funtsezkoena.

Horretarako, eta esan bezala, aurrena analisisa. Lehenik eta behin, azter dezagun egiten zenari buruz esandakoak, zer den egin dena, eta, oso garrantzitsua, nola saldu den kanpora begira. Bigarrenik, ustez aurrerakoa den politika horren benetako helburuei loturik, zer ondorio politiko, ekonomiko eta sozial izan dituen eta etorkizunerako zer aurreikuspen dauden. Azkenik, bizi dugun unea ongi ezaugarritu behar dugu Nafarroan proiektu apurtzaile bat berriz abiarazteko asmoa badugu.

Testu honekin batera datozen irudiak ikerketa apal baten emaitza dira. Hemen aurkeztu eta lankidetzarako gune gisa eskaintzen den dinamika baten lehen aurrerapena da honako hau, nahi duenak parte har dezan. Sei gai aukeratu ditugu diagnostikoa hasteko, eta sei gai horiek funtsezkoak iruditzen zaizkigu Nafarroaren azken hamar urteotako eraldaketaren garrantzia eta zentzua ulertzeko. Postal bakoitzean datu adierazgarriak aurkezten dira, eta 2015 aurreko Nafarroa gaur egungo panoramarekin alderatzeko aukera ematen digute. *Nafarroa, kapitalaren zerbitzura* irudiak enpresa-irabazien eta soldaten bilakaera konparatzen du; *Zerealak, txerriak eta ubidea*-k lurraren kontzentrazioaren eta ureztatzearen areagotzearen prozesua erretratzen du; *Nafarroa, paradisu fiskala*-k, lanerako karga fiskalen eta kapitalerako kargen arteko asimetria nola sakontzen den islatzen du; *Mirari forala*-k Eliza Katolikoaren eta Opus Deiren negozioen bilakaera azaltzen du; *Paisaia hondatuak* irudian potentzia elektrikoaren gorakada pobrezia energetikoaren igoerarekin kontrajartzen da; eta, azkenik, *Nafarroako Polizia Komunitatea*-k polizia bideratutako baliabide publikoen gorakada erakusten du.

Gure ustez, postal multzo honek hipotesi bat jendaurrean aurkezteko aukera ematen du, eta eztabaida zabaltzeko lan-esparru bat eskaini. Korralittoa bizirik den artean, borrokak jarraitzen du. Frankismotik oinordetzan hartutako Nafarroako botere-egitura ezin hobeto koipeztatuta eta egiturazko aldaketa gutxiarekin mantendu da. Egungo bloke aurrerakoiak korralittoa urberritzen jarduten du, betiko interesak asetzen jarrai dezan. Azken finean, zerk ezaugarritzen zuen eta du Nafarroako klase-egitura? Elite politikoaren eta elite ekonomikoaren arteko xede-batasunak. Jarraibide handiago batzuetan oinarritutako norabide iraunkorrak: enpresen interesekin lerrokatzea gobernu, bankuen etekinak babestea, soldatak arpilatzea, Eliza Katolikoaren eta Opus

Deiren pribilegio-posizioa mantentzea, euskarari oztopoak jartzea, ingurumenaren aldetik suntsitzaileak diren makroproiektuei ateak zabaltzea, gauzen ordena zalantzan jartzen dutenen aurkako errepresioa gauzatzea.

Gehienen bizi-baldintzek okerrera egin dute kalte txikienaren izenean, ezin baita hobetu metatze-zirkuituak kontrolatzen dituzten gutxiengoei lan-errentak transferitzen jarraitzen den bitartean. Hitz batez, eta orain arte, bloke *nabarrista* tradizionalak eta egungo bloke *aurrerakoiak* osatzen dituzte Nafarroako erregimen kapitalista kudeatzeko bi moduak. Eta politika instituzional bakar batek ere ez du erreallitate hori erroto aldatuko.

Aurrekoa esanda, krisi-testuinguru honetan, klase ertainak eta ongizate-estatua erreproduzitzeko oinarriak kolokan daude. Itun sozialerako marjina estutu egiten da, eta integrazio-estandarren azpitik geratzen den sektorea gero eta handiagoa da. Gobernuak ezin dituzte jada kapitalaren eta lanaren interesak bateratu, eta, ezintasun horren aurrean, lehenak babestea dute aukera bakarra. Mendearen azken laurdeneko nardidura sozialak eta ekonomikoak abagunea sortu du menpeko geruzetatik koiuntura pentsatzeko. Zer eskaera eta zer ekintza politiko landu ditzakegu deskonposatzen ari den gizarte-kohesioaren hondarretatik? Uste dugu atzeraezina dela haustura terminoetan hitz egitea foru korralitotako eta korralitotako progreak gizendutako klase ertain eta altuen arteko itunaz.

Izanen da bere garaian ilusionatu eta desengainuan amaitu zuenik, izanen da aldaketa errealek ez zelako bere hipotesiak baieztatuta ikusi dituenik, eta izanen da alternatiba hoberik ba ote den zalantza izaten jarraituko duenik. Hausnarketak eta eztabaidak partekatzeke eta erregimenarekin eta haren kolaboratzaileekin bat ez egiteko gune bat antolatzeke topagune izan dadila dinamika hau. Klase borroka aktibatzeke ziklo berri bat enpresarien eta korralitoko alderdien aurka. Aldaketa kosmetiko eta komunikatiboen aurka, aldaketa material, ekonomiko, politiko eta sozial integral eta sakonaren alde. Langile-klasearen onerako.

WEB
CORRALITOPROGRE.COM

INSTAGRAM
@CORRALITOPROGRE


E-MAIL
KONTAKTUA@CORRALITOPROGRE.COM



NAFARROA, PARADISU FISKALA

ZAMA, LANGILE KLASEAREN GAINEAN

PRESIO FISKALA (DROKORRA)



“Enpresak hobeto tratatzen dira fiskalki Nafarroan: esan egin beharko luke CENek”

José Luis Arasti, PSN, Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, 2025

Kapitalaren gaineko zergak 399 M € 2022

Lanaren gaineko zergak 1.597 M € 2022



ZEREALAK, TXERRIAK ETA UBIDEA

ALDAKETAK JABETZA KONTZENTRATZEN DU



“Gure lorpena izan da antikanalen inguruko gobernu batek esatea 2. fasea eraikiko dela”

Félix Barrián, UAGN, 2019

	2015	2022
Laborantza-hektareak	335.792 ha	335.257 ha
Labore ureztatuak	% 31,70	% 37,4
Ustiategi kopurua	19.230	14.295
Nitratoarekiko kalteberak	237 km2	995 km2
Autokontsumo baratzeak	2.846 ha	1.975 ha


NAFARROA, KAPITALAREN ZERBITZURA

BUFFET LIBREA ENPRESENTZAT, OGI-APURRAK LANGILE KLASEARENTZAT



“Enpresa munduaren garapenerako egonkortasun ingurune positibo bat sortzeko gai izan gara”

Mikel Buil, Podemos, 2019



MIRARI FORALA, AURRERA

POLTSIKOAK BETETZEN DITUZTE ELIZAK ETA OPUSEK




“Gauza on asko ekarri dituen erakunde batekin [Opus Dei] bizitzen ikasteko unea da”

Uxue Barkos, Geroa Bai, Nafarroako presidentea, 2017



PAISAIA HONDATUAK ETA POBREZIA

KAPITALISMO BERDEAK DENA IRENSTEN DU



“Berriztagarrien hedapena lan eta aberastasun iturri handia da gure eskualdeentzat”

Uxue Itoiz, Energiako, Enpresen I+G+b-ko eta Ekintzailetzako zuzendari nagusia, 2024



NAFARROAKO POLIZIA KOMUNITATEA

ERREPRESIORAKO BETI DAGO DIRUA



“Erregulazio malgua behar dugu, Nafarroako polizien eraginkortasuna bermatzeko, zerbitzua kaltetu gabe”

Adolfo Araiz, EH Bildu, 2018

